

GENERO INDARKERIA. Erasotzailea, ustez hildakoaren bikotekidea, ihes eginda dago ostiral gauaz geroztik

Hogeita hamabost urteko emakumea hil dute labankadaz Basauriko bere etxean

Biktima 1 eta 3 urteko bi haurren ama zen, eta bularrean eta lepoan egin zizkioten zaurien ondorioz hil zen

Erredakzioa | BILBO

Emakume bat labankadaz hil zuten ostiral gauean Basaurin; erasoak Baskonia kaleko 16. zenbakiko bere etxean gertatu zen. Erasotzaileak –ustez hildakoaren bikotekidea– ihesari ekin zion hilketaren ostean.

Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak ikerketa abiatu du erasotzailea atxilotu eta hilketaren zergatia argitzeko. Atxilotu keta gauzatu arte ikerketa sekretuan darama Ertzaintzak, eta ez du kasuaren inguruko daturik zabaldu.

Beste iturri batzuetatik jakin denaren arabera, ordea, hildakoa 35 urteko emakumea da, eta 1 eta 3 urteko bi haurren ama. Erasotzaileak bularrean eta lepoan egin zizkion zauriak, eta horien ondorioz hil zen. Hilketaren lekura joandako medikuek ezin izan zuten ezer egin, eta epaileak gaurdi inguruan eman zuen gorpua altxatzeko agindua.

Ustez tratu txarrak pairatzen zituen emakumeak

Hilketaren zergatia oraindik argitzeke dagoen arren, zantzu guztien arabera genero indarkeriaren ondoriozko beste kasu bat da.

Herrizaingo Saileko iturriek EGUNKARIARI baieztatu diotenez, aurtengo martxoan Ertzaintzak ikerketa zabaldu zuen emakumeak tratu txarrak pairatzen zituenez argitzeko. Emakumea Gal-



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Basauriko Baskonia kaleko 16. zenbakian hil zuten emakumea.

dakaoko erietxean ingresatu zuen, eta bertako medikuek esan zuten, zituen zauriak tratu txarrekin eraginda ziren. Emakumeak, ordea, ez zuen salaketarik jarri.

Auzotarrek ere susmo horiek dituzte. Bizilagun batek atzo esan zuenez, «emakume hori beti izan da bikotekidearen biktima bat». Uste hori auzoan oso zabaldua dagoela esan zuen:

«Auzoan bagenekien tratu txarrak pairatzen zituela, askotan izaten baitzuen aurpegia markatuta».

Basauriko Udalak, bere aldetik, kontzentrazioa deitu du as-

telehenerako hilketa salatzeke. Rafael Ibarguen alkateak atzo esan zuenez, hildako emakumearen bi haurrak Foru Aldundiko harrera zentro batean dau-

EUSKO JAURLARITZA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA - GASTEIZ

IKASLE OFIZIAL ETA LIBREEN AZTERKETAK

DEIALDI BEREZIA

2001-2002 IKASTURTEA

Alemaniera, Euskara, Frantsesa eta Ingelesko ikasle libre eta ofizialen azterketak irailaren 2tik aurrera egingo dira Hizkuntza Eskola Ofizialeko (Lasarte Atea, 23) iragarki taulan adierazten den egutegia jarraituz. Informazio bera lortu ahalko da Interneten "http://www.jet.es/eoi" edo 945-13 87 60 telefono zenbakira deituz.

LASARTEKO ATEA KALEA, 23
01007-GASTEIZ

New York University

***** **TELEBISTA IKASTAROA** *****

DEVELOPING and PRODUCING NEW PROGRAMS for TELEVISION

TELEBISTA SAIO BERRIAK GARATUZ eta EKOIZTUTZ

FRANK J. VALENTINI
Emmy for "One Life to live"

35 ordu

Data: • 2002ko irailaren 2tik

Nori zuzendua: • Telebista munduko profesionaleri

Onarpena: • Interesatuak euren Curriculum Vitae ingelesez idatzita bidali beharko dute.

Lekua: • San Sebastian.

Laguntzaileak:

• +34 943 297 111
• eskola@pausoka.com
• www.pausoka-eskola.com

eitb

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

HEZIKETA BEREZIKO IRAKASLE EZ DIREN LANGILEENTZAKO LANPOSTU ESLEIPENA

Heziketa Bereziko aldi baterako laguntzaile, Fisioterapeuta, Laneko Terapeuta eta Transkriptore edo Materialaren Egokitzaile lanpostuak esleitzeko ekitaldia ABUZTUAREN 29an, OSTEGUNA, EIBARKO HEZKUNTZA IKASTETXEAN (lehen CEI) egingo da. Zuzenbidea: Otalora Hiribidea, 29 Eibar. Esleipen ekitaldi honen ordutegia honako hau izango da:

- Fisioterapeuta, Laneko Terapeutak eta Transkriptore edo Materialaren Egokitzaile, goizeko hamarretan.
- Heziketa Bereziko laguntzaileak:
 - 55 puntu edo gehiago dituzten izangaiek, goizeko hamarretan.
 - 55 puntu baino gutxiago dituzten izangaiek, arratsaldeko lauretan.

Adjudikazioan, lan-talde honen ordezkapena zerrendak osatzen dituzten pertsona guztiek parte ahal izango dute. Ekitaldi honetan eta bakarrik honetan, hiru Lurralde Historikoetako esleipena egingo da. Batzorde Parekideak onartu zuen Hezkuntza Bereziko langile ez-irakasleen ordezkapenei buruzko araudian finkatutako erizpideen arabera egingo da adjudikazioa.

Ekitaldi horretara joatea derrigorrezkoa da. Ekitaldian, deitua izan eta agertzen ez dena zerrendatik baztertua izango da, interesatuak bertan ez egotea zehazki kreditatutako arrazoiak justifikatuak aurkezten badu izan ezik.